AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Prestatu eta trebatzeko ikastaroak

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

3989

EBAZPENA, 2016ko irailaren 6koa, Hezkuntzako sailburuordearena, Irakasleen Hizkuntza Eskakizunetarako azterketa-batzorde bateragilea izendatzen duena.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 1994ko urtarrilaren 10eko Aginduak bere 12. atalean dioenaren ildotik, hezkuntzako hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko azterketen Ebaluazio Batzorde Bateragilea izendatzea da ebazpen honen xedea.

Horregatik, hizkuntza-eskakizunen azterketak garaiz eta zuzen antolatu ahal izateko, honako hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Ebazpen honen bidez Irakasleen Hizkuntza Eskakizunetarako Azterketa Batzorde Bateragilea izendatzen da.

2. artikulua.– Batzorde bateragilea honako kideok osatuko dute:

– Ibon Olaziregi Salaberria jauna, lehendakaria.

– Maite Bernaola Etxebarria andrea, idazkaria.

– Maiteder Erkiaga Laka andrea, HAEE-IVAPen izenean.

– M. Karmen Ollora andrea, Arabako azterketa-batzordearen burua.

– Bittor Goti Argiñano jauna, Bizkaiko azterketa-batzordearen burua.

– Nekane Beloki Artsuaga andrea, Gipuzkoako azterketa-batzordearen burua.

3. artikulua.– Azterketa Batzorde Bateragilerako ordezkoak hauek dira: lurraldeetako azterketa-batzordeetan idazkari-lanak egiten dituzten aztertzaileak.

4. artikulua.– Batzorde Bateragilea da hizkuntza-eskakizunen azterketa guztien arduradun, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak horretarako eman dituen arauzko erabakien ildotik. Era berean lurraldeko batzordeburuei dagokie Azterketa Batzorde Bateragilearen xedapenak beren lurraldean ezartzea eta lurralde horretako azterketa-prozeduraren ardura.

AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENGOA

Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara eman eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA

Ebazpen honen aurka gorako errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuari, argitara eman eta hurrengo egunetik hasi eta hilabeteko epean.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko irailaren 6a.

Hezkuntzako sailburuordea,
MIREN ARANTZA AURREKOETXEA BILBAO.